

Abadeak eta politika

URSS-AITA SANTU

1982 urtearen azken-aldera Errusia'tik Vaticano'ra intzirika, Woytila Aita Santua politikan sartzen zalako, Burnizko Esiaren atzetik daudan Erri Komunisten kaltereko.

Vaticano'tik erantzuna legorra izan da: orrelakorik ez dagola ezer.

Piperragoak izan dira Italia'ko Alderdi Politikoen erantzunak, sozializtena bereiziki. Alderdi Komunista bera be ez da isilik geratu. Eta kontuan izan Europa osoan ez dagoela bera baiño Alderdi Komunista ugariagorik: Italia'koak ditu alderdikiderik gein. Berak be erantzuna emon deutso Errusia'.

* * *

Alderdi politikoetan jokatzeari beti izan da arrisku bat Elizentzako eta bere gotzai eta abadiantzako be. Euskaldunen artean be bai. Burruka zaleak ez izanda be, burruka artean ibilli gara beti: goitik Frantzia'ren eraso eta beetik Espainia'rena...

Beti auskia eta burrukea.

Kanpokoak asko ez dirala, barruan be mutur-jokea: Oñaz eta Ganboa, aundikiak eta erribilduak, karlistak eta liberalak, zurriak eta baltzak... Araba eta Naporroa Franco'rekin, Gipuzkoa eta Bizkaia aurka, gorriak eta urdiñak... eta iru kolorekoak.

* * *

Orain pake-bidea artuta gero, abertzaleak abertzaleen aurka, alkarren etsairik gogorrenek ba'lira lez. Anboto'ko Sorgiñaren mada-rikazioren bat badogu euskaldunok: etxe-barruan burrukea eta mutur-jokea darabilgun bitartean, kanpokoak guri noiz ederrak emoteko zai...

* * *

Eliz-gizonak bitartean, zer? Franco eta Godoen arteko praille historiagilleek beti ipiñi dabez euskaldunak salbaje utsak izan ba'lira bezela. Ez dabe esaten baiña, askatasun aldeko guda zala a, eta astakeri asko egin ebezala; baita jaso be. Onen berririk ez dabe emoten.

Karlisten denboretan abadeak agertzen dira gudari: el Cura Merino atzerritarren artean eta gure artean Santa Krus abadea... Franco'ren gerratean zer esanik bez. Gotzaietatik asita, Gomá kardena buru zutela... Apaizak ere reketé jantzita agertu zirean Gipuzkoa'n bere gudarosteekin batera. Gerran ez ebiltzenak be, sotana baltza eta buruan txapel gorria borla moraua zintzilika. Donosti kalean ikusita nago, kaputxino jantzita, falanjisten kapel ureiña buruan eta soldadu kapotea danen gaiñetik...

* * *

Karlistadan abadeak ibilli arren eta karlisten ikurriñak Foruak izendatu arren, eraso orretan bersolariak ez euken federik ez karlistekin eta ez abadiekin:

«Don Carlos ba'litz errege eta epaizak soldaduak, Euskalerriko Furuak laister lirake galduak...»

Don Carlos ez zan errege izan; alan be Furuak galduta gelditu ziran. Beti gu alde guztietatik, galtzen...

* * *

Denbora onetan, demokrazi aizeak jo dauanean, or dabilta zenbait abade eta praille gorri-gorri eginda. Franco'ren denboretan urdin-urdin egoazen aien antzera. Nok asma?

Arritzekoa da batez be Naporroa'n gertatu dana: kaki eta gorri agertu ziran amen ango abadeak; kaki-kolorea galdu dabe eta gorri gelditu dira, zuririk eta berderik artun barik. Naporroa ori eta gorri lotaratu zan; oria galdu dau berrogei urteko lozorroan; zuririk eta orlegirik artzeko itxaropenik bez... Orra, gorri.

Calvo Sotelo'k Donostia'ko Urumea frontoian, 1936'an, esandako itza, profezia gertatu da: «Antes roja, que rota».

ARRINDA'tar Anes